

VI. INKESTA SOZIOLINGUISTIKOA

3. kronika: **Hizkuntza gaitasuna eta erabilera**

Euskaldunen mintza-jokabidea aztertu dugu 3 molde bereiziz:

1. Euskal mintzamoldea : euskaraz beti, frantsesez baino gehiago edo berdin.
2. Noizean behineko euskal mintzamoldea : euskaraz gutiago edo oso gutiago.
3. Erdal mintzamoldea: beti frantsesez.

Euskararen erabilera gaitasunaren arabera

Gaitasunak	Euskaldun jendetza	Euskaraz gehiago edo berdin %	Euskaraz gutiago %	Beti frantsesez %	Euskararen heina %
Elebidunak	51.197	40	50	10	<u>%35</u>
Euskal elebidun	10.712	81	18	1	%52
Elebi. orekatua	19.239	45	53	2	%38
Erdal elebidun	21.246	14	64	22	%23
Elebi. hartzaile	23.300	0	47	54	%12

Lauki honetan agertzen da euskarari buruz gaitasunak duen eragina euskara erabiltzerakoan. Gaitasuna handiago eta erabilera ere handiago.

Hemen elebidunak deitzen dira bi hizkuntzetan, euskaraz eta frantsesez, mintzatzen ahal direnak, hots egiazko euskaldunak. Edo bi hizkuntzetan berdin, edo hizkuntza batean bestean baino errexkiago. Oro har euskarari %35en lekua ematen diote, askoz gehiago frantsesari (%65).

Euskal elebidunek erretxago mintzatzen dira euskaraz ezinez eta frantsesez. Hauek daukate erabiltzeko hein gorena (%52), euskaldunetan gutiengoan direlarik (bostetik bat). Kontrastez frantsesaren erabiltzeko heina %48 da, kasik euskara bezeinbat, nabari baita gizarte erdaldunaren eragina.

Kasik bitan gehiago dira elebidun orekatuak, hizkuntza batean ala bestean berdintsu ari direnak. Baina euskarari ematen dioten lekua (%38), frantsesari ematen diotena baino askoz apalago (%62). Beraz oreka gaitasunean da, eta ez erabileran.

Erdal elebidunak frantsesez errexkiago ari dira, eta askoz maizago : laurden bat euskaraz, hiru laurden frantsesez. Noizean behineko euskaldunak dira, frangotan frantses hutsean ari direnak.

Elebidun hartzaileek euskara ulertzen dute baina zailtasunak diruzte mintzatzerakoan. Halere euskara erabiltzen dute, %12ren heinean, adibidez euskal irratiak entzunez edo besteekin kantuz ariz.

Euskararen erabilera etxean, lagunekin eta eremu publikoan

Jendarte hurbilean	Euskaldun jendetza	Euskaraz + edo berdin %	Euskaraz gutiago %	Beti frantsesez %	Euskararen heina %
Etxean, lagunekin, eremu formalean	249.441 erdaldunekin	8	15	77	%08 X 3.5 =
	74.583 hartzaileekin	27	49	24	%28 X 1.25 =
	51.197 elebidunak	40	50	10	%35

Taula honetan agertzen da euskararen heina komunikazio eremu guztiak kontuan hartuz eta hiru erreferentzietan: jendetza osoa euskaldun eta erdaldun, euskaldunak elebidun hartzaileekin, euskaldun hiztunak bakarrik. Erabileraren ehunekoak gero eta hobeak dira. Jendetza osoa hartuz euskararen heina ehuneko hamarra da. Erdaldunak baztertuz orokorrean euskaldunetan heren ttipi batek erabitzen du euskara frantsesa bezainbat edo gehiago, erdiak frantsesa baino gutiago eta laurden batek frantsesa bakarrik; oro har ehunekotan euskararen heina %28a da. Euskaldun hiztunak bakarrik hartzen baditugu, beren artean %40ek euskara erabiltzen dute frantsesa baino gehiago edo berdintsu, erdiek euskara nipoizean behin, %10ek frantsesa bakarrik.

Molde berean zenbatzen badugu euskararen erabilera orokorra, hiru erreferentziak konparatuz, inkesta batetik besteko bilakaera ikus dezakegu.

Euskararen erabilera orokorraren bilakaera

Euskaldunak	1991	1996	2001	2006	2011	2016
Erdaldunekin	%13	%12	%10	%11	%10	%10
Elebidun hartzaileekin	%39	%37	%31	%33	%28	%28
Euskaldunak bakarrik	%49	%46	%39	%41	%35	%35

Taula honetan ehunekoak baditugu euskararen erabilera orokorrak, erdaldunak barne (emaitza ofizialak), euskaldunak elebidun hartzaileekin (coefizienteekin zenbatuak) eta euskaldun hiztunekin (konstanteak erabiliz). Zeinahi moldetan zenbatuz, ageri da euskara gero eta gutiago erabiltzen dela, transmisioa eta gaitasuna aitzinatzen ari direlarik. Ondorioz nabari da gure estrategiak hobetu behar ditugula, familiako hizkuntz pedagogia, eskolako erabilera goiztiarra, gizarteko hizkuntz politika.

Euskaraz mintzatzeko gaitasunari bezainbat kasu eman behar diogu euskara erabiltzeko motibazioari. Kontuan har dezagun botere publikoaren aldekotasuna beharrezkoa dela, bainan azkenean euskararen geroa herritarren aho-mihitan dagoela.

Erramun Bachoc, 2017-08-04, baxok@wanadoo.fr